BIZITEGI ERAIKINA — PRIM 20

D MAILA





Egilea eta data: Manuel Echave; 1905

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi 1933ko bi jasodura atzeraeman. Fatxadaren konposizio simetrikoa, balkoien eta erdialdeko baoetako zurezko begiratokien ordenak finkatutakoa. 1918an zertxobait zabaldu zen behe oineko ezkerraldeko baoa.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (5. eta 6. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokien tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.